



Ormaiztegi  
Udala

## ORMAIZTEGIKO LUDOTEKA TXIKIA (TXIKI-TXOKOA)

Egitasmoa herriko hainbat gurasok udalari duela bi urte inguru egindako eskaerari erantzuna eman asmoz jarriko da martxan. Oso lagungarri izan da guraso batek sortu eta udalari bideratutako txosten proposamena orain aurkeztera gatozkizuen honetara iristeko.

### AURKEZPENA

Gizarte etxeko beheko solairuan kokatutako Gizarte Aretoa (Gaztelekua) espazioa erabiltzeko aukera izango dute herriko txikienean, 0 eta 6 urte bitarteko haurrek, beti ere, adinez nagusiko pertsona heldu baten ardurapean. Udazken, negu eta udaberriko egun hotz eta euritsuetan erabiltzeko gune estalia izango dute honela, ahal den neurrian beraien beharretara egokitua egongo dena, eta, egitasmoa bidean aurrera doanean sortzen doazen beharrak asebetetzeko konpromisoa hartuta.

Espazioa erabili nahi duten familiek liburutegian eman beharko dute izena (Guraso bakoitzaren izen-abizenak eta telefono zenbakia emanaz). Izena eman aurretik, egitasmoa deskribatzen duen txosten bat entregatuko zaio guraso bakoitzari, lasai irakur eta sinatu dezan, nolabait bertan adierazitakoarekin ados dagoela adierazi eta egitasmoa modu egokian garatzeko konpromisoa azaltzeko. Partaide horiek zerbitzuaren inguruko ohar edota hobekuntza proposamenak udalari jakinarazteko Ormaiztegi App-eko *Idatzi Udalari* formulariotik egin beharko dute.

### ERABILERA ORDUTEGIA

Asteleheneretik ostegunera, 16:00etatik 18:00etara.

Larunbat igande eta jai-egunetan 11:00etatik-14:00etara.

Oharra: aste santu, udara eta gabonetako opor garaian beharrezko egokitzapenak egingo dira ordutegian.

### ARAUAK

Jarraian hainbat axolagabekeri aipatuko dira, non hauek aurrera eramateak ludoteka txikiko sarrera galarazi edo zuzenean ludoteka txikiaren itxiera ekar dezaket.

-Haurrak bakarrik, hitzartutako arduradunik gabe urtea.

-Haurrak korrika, pilotarekin, borrokan, builaka edo beste haur edo helduei molestatzen egon eta jarrera hau ez moztea.

-Haurrak meriendatu eta bertako azal, papertxo edo abar lurrera bota edo eroritakoa ez jasotzea.

-Gauzak, jostailuak, paperak, margoak eta abar, beraien lekuetatik atera eta ez jasotzea.

-Aretoko altzari, jostailu edo abarren bat arduragabekeriagatik hautsi, puskatu; heldu edo haur batek min hartu edota beste edozein ohar garrantzitsu Udalari ez jakinaraztea. Kasu hauetan, ahal den neurrian, Ormaiztegi App ko *Idatzi Udalari* formularioa erabiltzea eskatzen da.

-Helduek erretzea edo edonor suarekin ibiltzea.

-Alkohola edatea.

-Animaliak sartzea.

-Komunak jolasteko erabiltzea.

-Eurria dagoenean, aterki, karrito edo txaketa bustia edonon uztea, inguruko lurra busti eta labainkor utziz.

-Oinetako zikinekin, lokatza bereziki, aurrera eta atzera ibiltzea.

-Ezin da "merendolarik" antolatu.

-Pertsona kopuru maximoa pasa eta kasurik ez egitea

### PROBALDIA

Ludoteka txikia edota txiki-txokoa bezela izendatu den zerbitzua probaldian egongo da martxoaren 27tik uztailearen 21 bitartean eta izendatu berri direnetako edozein edota elkarbizitza, elkarrenganako nahiz herri ondarearekiko errespetua puskatzen duten jarrerak gertatuz gero, zerbitzua etetea ekarriko dute.

Aipatutako probaldia modu egokian igarotzeak zerbitzua datorren ikasturtean berriro martxan jarri eta unean-unean beharrezko diren hobekuntzak nahiz baliabideak bideratzea ekarriko du. Besteak beste, erabiltzaileen sartu-irtenak eta hauen erregistroa erraztuko duten tresna praktikoagoak bideratzea.